

## BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezeroak erakartzea oso garrantzitsua da, batik bat gure enpresa haiekin jarduerak egitean eta haiei produktuak saltzean oinarritzen delako. Horregaitik, bezeroak ezinbestekoak dira gure proiektuak aurrera egin dezaten.

Bezeroek programatutako jarduerak begiratzeko eta informazioa aurki dezaten, web-orri bat eskainiko diegu. Gainera, badakigu gaur egun jendeak sare sozialak asko erabiltzen dituztela batez ere gazteak, eta horretarako gure enpresak kontu bat sortu du hainbat sare sozialetan. Haietan, jardueretan egindako ekintzen argazkiak argitaratuko ditugu eta bezeroei proiektu berrien berri emango diegu. Bestalde, posta elektronikoko bat eta telefono-zenbaki bat jarriko ditugu bezeroen eskura, zalantzak galdetzeko edo jarduetara apuntatzeko.

Gure enpresak duen abantaila handi bat bazkidea izateko aukera dagoela da. Bazkide diren guztiei trajeta bat emango zaie, eta horrekin deskontuak izango dituzte ordaintzerakoan. Horrez gain, hileko egutegi bat izango dute, programatutako jarduera guztiak ikus dezaten, eta, azkenik, proposamenak egiteko aukera izango dute.

